

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroa da herritartasuna lortzen duten atzerritarren ehuneko handiena duen autonomia erkidegoa

Foru Komunitatean bizi diren bost etorkinetik batek, gutxi gorabehera, Espainiako herritartasuna lortu du azken hamarkadan.

Martes, 10 de diciembre de 2013

Foru Komunitatea da herritartasuna eskuratu duten atzerritarren ehuneko handiena duen autonomia erkidegoa. % 3 da urteroko ehunekoa; estatu osokoa, aldiz, % 2. Hala baieztatu du Gizarte Politiketako Departamentuko [Nafarroako Inmigrazioaren Behatoki Iraunkorrek](#) Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko [Inmigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Orokorreko](#) datuekin egindako azterlanak.

Azken hamarkadan, Foru Komunitatean bizi diren bost etorkinetik batek, gutxi gorabehera, Espainiako herritartasuna lortu du. Zehazki, 2002 eta 2012 artean [18.232 atzerritarrek](#) lortu dute herritartasuna Foru Komunitatean, eta, 2007tik, urtean 2.000 etorkinek baino gehiagok lortzen dute.

Nafarroako Inmigrazioaren Behatoki Iraunkorrek azpimarratu duenez, azken bi urteetan % 5 egin du behera Foru Komunitateko [atzerritarren kopuruak](#). Horren arrazoiak etorkinen etorrera eten izana, jatorrizko herrialdeetara itzuli izana eta, gehienbat, Espainiako herritartasuna lortzeko prozesu luzea dira.

Eskakizunak, jatorria eta sexua

Herritartasuna lortzeko irizpide nagusia Espainian hamar urtez legezko bizitoki jarraitua izatea da. Hala ere, denboraldi hori bi urtekoa da Iberoamerika, Andorra, Filipinak, Ekuatore Ginea, Portugal eta sefardien komunitatekoentzat. Bestalde, espainiar batekin ezkonduz gero, Espainian bizi beharreko denboraldia urtebetekoa da.

Nafarroan, Espainiako herritartasuna lortzeko modu nagusia egoitza eraginkorra bertan izatea da. 2012an herritartasuna lortu zutenen % 71,7k (bi urteko eskakizuna beteta) eta % 13,1ek (hamar urtekoa beteta) baliatu zuten bide hori.

Iaz Espainiako herritartasuna eskuratu zutenen artean Ekuador eta Kolonbiakoak dira gehienak. 2004tik, herritartasunaren estatistika jatorriaren arabera xehatzen hasi zenetik, Nafarroan herritartasuna lortu zuten lautik hiru Ekuador, Kolonbia, Peru eta Marokokoa jaiotakoak ziren. Azpimarratu beharrekoa da, gaur egun, azken eroldako datuen arabera, Ekuadorren jaiotakoen artean, Ekuadorreko herritartasuna dutenekin alderatuta, Espainiako herritartasuna duten pertsona gehiago dagoela.

Sexuari dagokionez, gizonek baino emakume gehiagok dute

Espainiako herritartasuna, Nafarroan zein estatu osoan. Hori dela-eta, 2002-2012 denboraldian, emakumeen ehunekoa % 54,9 izan da Nafarroan eta % 56,2 estatuan.